

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZALLAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urtarrilaren 25ean Zallako Udalaren, Zallako Eguzki Egoitza toki erakunde autonomoaren eta Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL, sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; alabaina, kontularitzako hainbat doiketa azaleratu dira, horiek erregistratzeak Udalaren Diruzaintza Geldikina 477 mila euroren zenbatekoan murriztea eragingo luketenak eta ez du Udalaren Balantzeko ibilgetu materialaren amortizazio funtsaren zuzentasunari buruzko ondorioz ematerik izan, ez baitago aktiboen arabera banakakotua.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Nahiz Aurrezki garbiaren eta Diruzaintza geldikinaren bilakaera negatiboa den azken hiru ekitaldietan, Udalak ez du zorpetze bidea baliatu beharrik izan eta oraindik sarrera arrunten gainean % 39ko Geldikina du.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2016an aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Bai Udalak, bai bere erakunde autonomoak, bai udal sozietateak ere, guztiek zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian haien ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren Langileen atalean eta Administrazioako Kontratazio atalean; izan ere, Udalak 8 langileren ez-legezko lagapen egoera aitortu du, lan-kontratu mugagabe ez finkoko langile izaera hartu zutenak; berebat, Enkarterri Berri Zerbitzuak ez zion publikotasunik eman lehiaketari, 93.699 euroren balio zenbatetsia zuenari.